

## **Familiako Zaintzailearen Senitartekoak eta ingurune soziala**

### **Sarrera**

Familiako zaintzaileak argi izan behar du ez dagoela bakarrik. Senitartekoak eta lagunak ditu, eta haiengana jo dezake eta jo behar du. Beharrezkoa da harreman horiei eustea pertsona gisa errealizatuta sentitzeko. Orduan, zoriontsu izango da, eta egoera hori mendekotasun – egoeran dagoen pertsonari ere helaraziko dio.

Besteak zaintzeko norbera zaintzea giza harremana eta ingurukoekin dugun kontaktua mantentzea eta areagotzea ere bada. Kapitulu honetan eta azaltzen da zer den beharrezkoa senitartekoekin gizarte – ingurunearekin guztiz integratzeko.

### **Familiako zaintzailea: noiz eta zergatik sortzen da?**

Gure inguruko norbaiten egoerak aldatu egin du haren autonomia pertsonala. Hainbat arrazoiengatik gerta daiteke, eta eguneroko bizitzako oinarri jarduerak egiteko beste pertsona baten laguntza – kasuan kasuko maiztasunarekin – eskatzen du.

Lehen egunetan, berez sortzen da familiako zaintzailea. Fisikoki eta emozionalki hurbilen dagoena izan ohi da. Une horretan, familiako zaintzailearen esku geratzen da arreta. Uneoro, gau eta egun, mendekotasun – egoeran dagoen pertsonaren gainean egoten da. Hark laguntza gehiago behar duenean, zaintzaileak ez du laguntzarik eskatzen, eta bere harremanei denbora kentzen die pixkana, guztiz alde batera utzi arte. Beti ezin da, gainera, pertsona batek beharko duen denbora eta arreta kalkulatu, izan ere, mendekotasun iragankorra (haurra, hezurren bat haustea, gaixotasun vírico bat, ebakuntza ostekoa, depresiva, etab.) edo mugagabea izan daiteke (endekapenezko gaixotasuna, muineko lesioak, arazo mentalak, minusbaliotasun sentesorial larriak, adina, etab.)

Ustekabean sortutako egoera ohiko bihurtzen da mendekotasun – egoeran dagoen pertsona zaintzeko, beretzako denborari uko egiten dio, eta senideek zein gizarte – inguruneak normalizat hartzen dute. Orduan, bakarra eta ordezkazina bihurtzen da familiako zaintzailea. Inork ez du pentsatu ere egiten mendekotasun – zirkulutik at bere bizia izan dezakeenik.